

Zorionekoak euskaldun berriak...

Duela hamar urtetik baino ez omen da euskalduna Angel. Hori aitortu digu bere azken ttakunean, eta datu zehatza jakiteak hunkitu egin nau.

Gustura esango nioke –eta esan egingo diot–: Lasai, Angel, hamar urteko euskaldun berria izatea denborak konponduko duen gai-xotasun arina baita. Dagoeneko, eta nik egindako liburu-hegalak gezurrik esaten ez badu (ez da aurreneko aldia izango), bere bizitzaren ia herena pasatu du euskaldun, eta kontuan hartzen badugu lehen bizpahiru urteetan hizkuntza guztiak antzekoak direla, herena baino gehiago, beraz.

Inbidia pixka bat ematen dit hamar urteko euskaldunak, ez dut ukatuko: Pitxu zer edo nor den ez dakienak, oraindik gauza asko ikasteko eta deskubritzeko daukanak. Baina inbidiaren puntu gorena, Filipe Bidart nor den ez jakiteak ematen dit. Hunkitu egin nau, Angel. Ez naiz hemen gurasokeriaz Angel jaio zenean ni zertan nembilen esaten hasiko. Bego, beraz. Baina ezin dut burutik kendu, beharbada, Angel bezalako euskaldun berri asko beharko genukeela, eta ez naiz ari hizkuntzaren ikasketaz sortzen den euskaradun berriei dagokionez bakarrik.

Gainerakoan, ahaztu baino lehen esan behar diot Angeli hemen euskaldun zahar asko garelako euskaldun berri mozorrotuak. Eta orain bai hizkuntzaz ari naiz, zeren beste gainerakoan zahar antzinakoak baikara, berritzeari izua diogunak.

* * *

Batak, Angelek, bere hamar urteko euskaltasuna aitortu digu; Itxarok, berriz, ia barkamena eskatzen digu Pitxuri hitz lotsagabea pasatze-ko orduan “ez zuberotarrez prefosta, iparraldeko euskara, barbaro arraroa, zailegia eta kasik ulertezina bilakatua zai-zuelakoan jadanik”. Bitxia da nire bi ttakunkideen jarrera. Ez al dira konturatzen ustezko akatsa abantaila dutela? Eta zer esan behar dut nik orain? Barkamena eskatu behar ote dut



DANI BLANCO

Inazio Mujika

Borda

Errro

euskaldun berri zahar eta gipuzkoarra naizelako? “Earki gatxek”, esango luke gure osaba elebakar –hura bai– euskaldun zaharrak. Gogoan dut aspaldi (Angel oso erdaldun eta umea zen garaian), eta nire joera gorri samarra ikusita, gure osaba baserritar horrek berak nola esaten zidan “gauza handia egin nahi duzue zuek alajainetan, itaie-ta-mallue ekarri: hortik

lehendik ere bazeukaagu nahikoa”. Beldur naiz zuberera eta euskaldun berrien kontu honetan ere ez ote garen ari igitaia eta mailua lehendik ere nahikoa ezagutzen duenari ekartzen.

Argumentu berriak zor dizkiogula iruditzen zait euskaldungoari, euskaldun berri –ez bakarrik hizkuntzaz berri– egin dadin.

* * *

Iritzia eman beharrak mozkortu egiten du. Guztiaren eta guztien gaintetik jartzeko arrisku hordigarria du garaiz neurririk hartzen ez denak. Urtebete pasatu da ttakun-herregintzan hasi nintzela. Mozkor sentitzen naiz. Txispantu puntua pasatuta. Zailtasun berezia dauka berekin beste ttakunkideei erantzuna eman beharrak hiru asteko epean, haiek erantzuna eman dezaten bideak zabalduz gainera.

Zer esan ttakunkideei buruz. Esker ona zor diet. Lagun nituen lehendik eta lagun ditut oraindik ere. Ez da gutxi. Ez dakit nahikoa den. Adis-kide zorrotza datorkie ttakungintzara. Josi Basterretxea. Zorrotza gizona, zintzoa haatik –Machadoren zentzu onean–. Berari pasatzen dizkiot makilak. Herren polita egingo du inondik ere.

Mozkor sentitzen naiz beraz. Lagun batek erakutsi zidan, gehiegi edan denean, hoberena espanturik gabe alde egitea dela, agur hitzak luzatzen ibili gabe, mozkorraren orratzak inork suma ez ditzan. Adio doi bat, buelta erdi eta aurreneko kale-kantoi pasatu arte, behintzat, xuxen joaten saiatu... ■



Mozkor sentitzen naiz beraz. Lagun batek erakutsi zidan, gehiegi edan denean, hoberena espanturik gabe alde egitea dela, agur hitzak luzatzen ibili gabe, mozkorraren orratzak inork suma ez ditzan

